

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINTZA MODULARRA 2024-2025 GOI-MAILA

“ZUZENDARITZAN LAGUNTZEA” ZIKLOKO ESKAINTZA MODULARRA (euskaraz) “Administrazioa eta kudeaketa” lanbide arloa

CIP Elizondo Lanbide Eskola IIP Elizondo

SARBIDE-TALDEAK

1. taldea. Honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak:

- 'Administrazioa eta finantzak' goi-mailako teknikariaren titulua,
- Eta bi hauetako bat:
 - Gutxienez urtebete lehenagotik Nafarroan erroldatuta egotea.
 - Azken bost urteetan, gutxienez, lanaldi osoko urtebeteko lan-esperientzia izatea Nafarroako enpresetan.

2. taldea. Honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak:

- 'Administrazioa eta finantzak' goi-mailako teknikariaren titulua,
- Eta ez du bi hauetako bat ere egiaztatu:
 - Gutxienez urtebete lehenagotik Nafarroan erroldatuta egotea.
 - Azken bost urteetan, gutxienez, lanaldi osoko urtebeteko lan-esperientzia izatea Nafarroako enpresetan.

3. taldea. Modulu-eskaintzaren lanbide-sektorean lan-esperientzia dutela egiaztatzen duten eta lantokiko prestakuntzako modulua egiteko hitzarmen aktiboak dituzten enpresetan lan egiten duten pertsonak ("Administrazioa eta kudeaketa" lanbide-arloko zikloak ematen dituzten Nafarroako ikastetxeekin).

4. taldea. 1-3 taldeetako egoeretako batean ere ez dauden eta goi-mailako zikloetan sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonak.